



BARREN
TOKIKOM

Boxeoan bidea urratuz



Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Aukelariketatik ostiralarerako: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoiz ere ezin izango duzue
Datu ordua hartzeko.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



Elgoibarko Haurreskola

ATE IREKIAK

ETORRI GURE ESKOLA EZAGUTZERA!



Data 2019 - 05 - 06

Ordua 17:00etatik 19:00etara

non Arregitorre, 4

**Maiatzak 2tik 10era goizean,
10:00etatik 11:00etara
bisitak egiteko aukera**

**Izena emateko epea
maiatzaren 2tik 10era**

elgoibar.elgoibar@haurreskolak.eus
www.haurreskolak.eus
Arregitorre,4 - 943 742 141



Fp FERRAZI
UNIBERSITATEA

IMH FABRIKAZIAREN
ZENTRO ABERRIKATZA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACION

HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saloa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztafzeak: 943 74 82 65
amala@imh.eus

Webgune berria:
www.imh.eus




IMH FABRIKAZIAREN
ZENTRO ABERRIKATZA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACION

UPV EHU

INGENIARITZA GRADU DUALA

Informazio saloa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztafzeak: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus

Webgune berria:
www.imh.eus



IBON SERRANO LASA

Ingeniaria



“Lurraren ahalmena bukaezina balitz sikiera! Ergelduta, baina biziraungo genuke”

Gizateriaren patuaz ezkor nator. Stephen Hawkingek 600 urte aurreikusi zituen lurra xahutu bitartean. Beldur naiz ez ote zaigun ezta horren erdia geratzen, elite konspiratzaileek inposatutako dinamika autosuntsizailerara beharturik.

Sistema honek boteretsu psikopatiko hauen aberastasuna areagotzen baitu; gu, lehiaren izenean eta zor ekonomiko eta sozialak kitatu nahian, lan & kontsumo gurpil zoroan katramilaturik gaudelarik. Kontsolamendu hutsaltzat teknologia berrien positibismo postmodernoa eskaintzen zaigu, noski, anai nagusiari arima saltzearen truke.

“Matrix” gizartea irudikatzen?

Lurraren ahalmena bukaezina balitz sikiera! Ergelduta, baina biziraungo genuke. Zoritxarrez ez da horrela, baliabideen Peak everything egoeran bizi baikara. Fikziozko ekonomia kapitalista mantentzeko, dirua excel orrien bitartez sortzen da etorkizuna hipotekatuz. Guzti honi, populazioaren hazkundera eta kontsumo gosea gehituz gero, ekuazioaren ebazpena erraza da.

Agintariak, sistema ezbaian jarri gabe, teknologia jartzen dute jasangarritasunaren itxaropen aldarritzat. Baina ez al da oximoron bat? Egun, mandarina ale txikiak dauka kendu beharreko itsasgarria, urdaiazpiko bi xerren artean ere aurki dezakegu plastiko banagarria; aizua, eta ibilgailu elektrikoaren fartsa? Balio “erantsia” ala “erantzia” al da sortzen duguna?

Ez duzu zilegi aurrerapena erabat gaitzestea. Are gehiago zuri medikuntza modernoak hainbat tara fisiko sendatu dizkizunean (psikikorik ez, beharrean izan arren).

Ups...touché...

Bon, onar dezagun “arrazoizko” aurrerapen eta ongizatearen delako muga gainditu dugula. Alternatibarik?

Hawkingek planeta berriak kolonizatzea zioen, baina ez daukat garbi.

Agian gauza txikiak hurbilduz? Norbera eta urkoak maite, osasuna zaindu, izpiritua landu, naturaz gozatu, eskulanak egin, euskaraz jardun eta ikasteko kuriositatea izan (Ilunberri Achademiko hitzaldietan parte hartuz, esate baterako).

Gehitu honi Masanobu Fukuokak natura salbatzeko planteatu zigun aukera bakarra uztartzea, Nengo Dango disziplina! Alegia, haziz betetako buztinezko bolatxoak barreiatu non nahi!

Gozatu udaberriaz!

Gezurra dirudi, baina hor da oraindik naturaren pultsioa!



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Sorluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugeriza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Berandutu zaigu, baina ez gaude esan gabe lagatzeko. Lerro hauen bidez eskerrik eman nahi dizkiegu Kilimon Trail mendi lasterketa arrakastatsua izan zedin euren onena eman zuten guztiei. Mila esker babesle eta laguntzaile izan zintugunoi, zuen ekarpenik gabe ezingo genukeelako sekula maila honetako

lasterketarik antolatu. Eskerrik asko, era berean, herriko eta inguruetako baserriarroi, emandako erraztasunengatik, eta baita egunean bertan lanera batu zineten boluntario guztioi ere. Eskerrik asko etxekooi ere, jakina, lasterketa aurreko aste eta hilabeteetan etxeko-arduren zama zuen gain hartzeagatik eta gurekin izandako pazientziagatik, eta nola ez, gure eskerrik

beroena mendiko lasterketa guztien artean gurea aukeratu zenuten korrikalarioi. Zuek guztioi esker, egun biribila izan genuen apirilaren 6a Mendaron, eta horrek lanean ilusioz jarraitzeko indarra eman digu. Datorren urtean ere ondoan izango zaituztegunelakoan, agur bero bat.

**Mendaroko Txirindulari Elkarte
eta Lizarpe Mendi Kluba**



Gloria Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko apirilaren 28an hil zen, 81 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Betirako itzali da
Berasetako argia
hemen gelditu gera
triste familia
San Blasak denentzako
irribar aurpegia
beti gogoratuko
zaitugu gure Gloria.**



I. URTEURRENA

Ceferino Gonzalez Velasco



2018ko apirilaren 23an hil zen, 80 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzaren 4an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

**Gugan utzi duzun aztarnak
betirako iraungo du.**

Etxekoak

EAJ alderdiak jaso du herritarren babes handiena Espainiako Kongresurako hauteskundeetan, Elgoibarren zein Mendaron

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izan genituen domekan, Frankismoaz geroztik hamahirugarrenak, eta Katalunian, Hego Euskal Herrian eta Melillan izan ezik, denean irabazi zuen PSOEk, nahiz eta akordioak beharko dituen Pedro Sanchezek presidente izateko (Ahalgintza daiteke Ciudadanosekin edo saiatu daiteke ezkerreko alderdiekin). Hego Euskal Herrian, baina, EAJ izan zen alderdirik bozkatuena Kongresurako hauteskundeetan, baita Elgoibarren eta Mendaron ere. EAJren atzetik EHBilduk batu zituen boto gehien, eta PSOEk hurrengo. Datuei begira jarrita, aipagarria izan zen parte-hartzean izandako gorakada. Elgoibarren, %74,77koa izan zen parte-hartzea, eta Mendaron, %73koa. 2016ko hauteskundeetan baino hamar puntu handiagoa izan zen beraz parte-hartze datua bi herrietan. Eta parte-hartze handiak Espainiako eskuinari egin zion kalte. PP, Ciudadanos eta VOX alderdiek jaso zituzten botoak batuta, Elgoibarren, 454 boto lortu zituen eskuinak, 2016ko hauteskundeetan PPK berak bakarrik lortu zituenak baino hamar gehiago (441 boto eskuratu zituen). Mendaron ere beste horrenbeste gertatu zen. Hiru alderdi horiek 44 boto pilatu zituzten guztira domekan, eta 2016ko bozetan, PPK berak lortu zituen 43. Behean dituzue, bi herriotako datuak, hauteslekuka emanda.



Herriko merkataritza sustatzeko bono-kanpaina hasi du Txankakua Elgoibarko merkatarien elkarteak

Kontsumoa bultzatu eta herriko merkataritza sustatzeko, bono-kanpaina jarri du martxan Txankakua merkatarien elkarteak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean. Maiatzaren 2tik 31ra bitartean erosi ahal izango dira bonoak.

Txankakua merkatariei elkarteak herrian erostera bultzatu nahi ditu herritarrek, eta horretarako, bono-kanpaina jarri du martxan, Udalarekin lankidetzan. 40 euroko bonoa erosita, 50 euroko erosketa egin ahal izango da. Kalebarraren plazako lokalean salduko dituzte bonoak, astelehenetik ostiralera. Goizez,

9:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara. Aurreko urteetan moduan, Txankakuaren bonoa 25 euroko bi zatitan banatuta egongo da; hortaz, gutxienez 25 euroko erosketa egin behar da. Nahi izanez gero, 50 euroko bi bono elkartzeko aukera ere badago, eta horrela 100 euroko erosketa egin. Guztira 500 bono banatuko dituzte.

Funtzionamendua

Elgoibarren erroldatuta daudenentzat balio du kanpainak, eta herritarrek bonu bat eskuratu ahal izango dute NAN (hel-

bidea indarrean izan beharko da) edo erroldatze bakoitzeko. 50 euroko bonu hori 25 euroko bi bonutan egongo da zatituta. Erosketa egiteko momentuan, baina, bi bonu oso metatu ahal izango dira tiket baten, hau da, 100 euroko baliaraino, baina gutxienez 25 euroko gastua egin beharko da.

Bonuak ezingo dira inoiz diruagatik trukatu. Beraz, bezeroak produktua itzultzen badu eta itzultitakoaren ordeztu bat hartzen ez badu etxerako, merkatariek erosketa txartel bat egingo dio erosketaren zenbatekoa zehaztuta, baina ez dio dirurik itzuliko.

Bukatzeaz daude Juan Mugertza kalea berritzeko hasitako obrak



Juan Mugertza kalean zituzen hezetasan eta irisgarritasun arazoak konpondu eta kalea berritzeko Elgoibarko Udalak hasitako obrak azkenetan dira. 193 garajeetako eta San Rokeko 24-26-28-30-32-34 eta Juan Mugertzako 1-3 portaletako jabeek aspaldikoa zuten eskaera bati erantzun dio Udalak. Eta iragarritakoa baino beranduago, baina aurki bukatuko dituzte obrak. Irisgarritasuna hobetzeko arrapala bat eraiki dute, lurra berritu dute, hezetasan arazoak konpontzeko egin beharrekoak eginda, eta lorontziak, egurrezko eserleku berriak, zaborrontziak, eta kalean gimnasia egiteko makina ezberdinak ere jarri dituzte, oinezkoiei lehenetasuna emateko asmoz diseinatu zituztelako obrak. Egin beharrekoak eginda, itxura berritua ageri du kaleak, argazkian ikus daitekeen moduan.

Bigarren eskuko azoka egingo dute Mendaron, hilaren 12an

Bigarren eskuko azoka antolatu dute Mendaron maiatzaren 12rako. Aurrekoetan moduan frontoian egingo da, 11:00etatik 15:00etara. Azokan erosten dutenek txartel bana jasoko dute trukean, eta txartel guztiak zozketa batean sartuko dira gero. Guztira, 100 euro banatuko dituzte sari ezberdinetan.

Azokak irauten duen orduetan, Mandirakoak birziklapen tailerra ere egingo dute frontoian bertan, eta Mendaroko Kaleko Antzerkia taldekoen antzezlanak ikusteko aukera ere izango da.

Xake Eguna antolatu dute Mendaron biharko

Mendaroko Arno Guraso Elkarteak Xake Eguna antolatu du biharko, maiatzaren 4rako, 10:30etik 13:30era. Xakea ezagutarazteko asmoz antolatu dute, eta Herriko Enparantzan hainbat txoko jarriko dituzte helburu horrekin. Adin guztietako jendeak parte hartu ahal izango du. Eguraldi txarra egingo balu, Herriko Enparantzan beharrean, frontoian egingo lukete.

Abian da TKgune, enpresa industrialen gazteentzako ideia lehiaketa



Seigarren urtez enpresa industrialen ideia lehiaketa antolatu dute Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 35 urte arteko gazteentzat. Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Degebesak eta EHUko unibertsitateak antolatu dute, beste hainbat eragileren babesarekin. Lehiaketaren oinarriak www.imh.eus/tkgune-ideia-lehiaketa webgunean jarri dituzte, eta interesatuek maiatzaren 20a arteko epea izango dute ideiak aurkezteko, IMHn. Irabazleek 2.500 eta 2.000 euroko sariak jasoko dituzte, eta baita proiektua garatu eta negozio bihurtzeko behar duten prestakuntza (neurritan egindakoa), aholkularitza-orduak eta makina eta instalazio industrialak erabiltzeko orduak ere. Informazio gehiago nahi dutenek IMHn eskura dezakete, Roberto Altzerrekagatik galdetuta. Era berean, baina, helbide elektroniko bat eta telefono zenbaki bat ere eman dituzte aukeran: ekintzaile@imh-eus edo 943 744 132.

Erorikoak saihesten ikasteko tailerra antolatu dute Elgoibarren 64 urtez gorakoentzat

Erorikoak dira lesio eragile nagusiak 64 urtetik gorako adinekoetan. Datu epidemiologikoen arabera, gutxienez urtean behin erortzen dira adin talde horretakoek erdia, eta ondorio fisikoak ez ezik, psikologikoak eta sozioekonomikoak ere izaten dituzte. Arazoaren larriaz ohartuta, erorikoak saihesten ikasteko tailerra antolatu dute Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak, Kirol patronatuak eta Jubilatuen Biltokiak, Osakidetzako Osasun zentroekin, Elgoibarko Ortopedia batekin eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin lankidetzan. Tailerra Elgoibarko Jubilatuen Biltokian emango dute (San Frantzisko kaleko 21. zenbakian), eta bi saio teoriko-praktiko izango dira: maiatzaren 22an bata, eta maiatzaren 29an bestea, 16:30etik 18:00etara biak. Tailerra 64 urtez gorako lagunei eta haien senide edota zaintzaileei dago zuzenduta. Tailerra doan izango da, baina interesatuek izena eman beharko dute aurrez, Elgoibarko ambulatorioan edo Jubilatuen Biltokiko bulegoan, asteleheneretik ostiralera, 11:00etatik 12:00ak bitartean. Apirilaren 25ean zabaldu zuten izena emateko epea, eta maiatzaren 21era arte egongo da apuntatzeko aukera.

Elgoibarren udaltzaingoko lau plaza betetzeko oposizio-lehiaketa, abian

Elgoibarren Udaltzaingoko lau plaza betetzeko hautaketa-prozedura deialdia hasi du Udalak, Polizia eta Larrialdieta-rako Euskal Akademiaren bidez. Deialdi ofiziala Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikatuta dago, eta aurkeztu nahi dutenek maiatzaren 20a arteko epea dute eskabideak aurkezteko. Eskabideak www.arkauteakademia.eus-en aurkeztu beharko dira. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte aurkezten direnek: bigarren euskara hizkuntza-eskakizuna izatea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo balio-kidea edo gorakoko mailako graduatu-titulua izatea eta B gidabaimena izatea. Era berean, gizonezkoek 1,65 metroko altuera izan beharko dute gutxienez, eta emakumeek, 1,60 metrokoa. Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa bidez egingo da.

Urbizixa proiektua aurkezteko ate irekiak, Upai Goiti baserrian

Urbizixa proiektua aurkezteko, ate irekien eguna izango dute maiatzaren 11, zapatua, Upai Goiti baserrian. Urtean zehar izango duten eskaintza aurkeztuko dute bertan, eta landuko dituzten disziplinen gaineko tailerrak ere izango dira: mikrogimnasia, giza diseinua, Kundalini yoga, dantza integrala eta doluari eta adiskidetzeari buruzkoa. Tailerrak doan izango dira, baina antolakuntza gastuei aurre egiteko parte hartzaile bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu (bazkaltzeko aukera izango dute diru horrekin). Plaza mugatuak izango direla aurreratu dute antolatzaileek, eta horrenbestez interesatuek izena eman beharko dute aurrez, ondorengo zenbaki honetara deituta: 627 117 819 (Izan).

▶ **IXA RODRIGUEZ** BOXEOLARIA

“Kirol bortitza dirudi, baina guztiz kontrakoa da boxeoa”



2012an hasi zen Ixa Rodriguez (Soraluze, 1982) amateur kategorian boxeatzan, eta bost urte maila horretan borrokatzen aritu ostean, profesionaletan dihardu 2018tik. Betidanik gustatu izan zaio kirola, eta hainbat kirol espezialitatetan jardundakoa da, baina boxeoa probatu zuenetik, ez dago beste kirolik bere bizitzan. Erabat harrapatu du boxeoa, eta bere onena ematen dio berak boxeolari. Lan eta ordu asko eskaintzen dizkio, eta gaur egun, boxeoa bizi da. Bihar, boxeolari buruzko oinarritzko ikastaro bat emango du IMH kiroldegian 10:30etik aurrera, eta maiatzaren 11rako, boxeo borrokaldia antolatu dute. Olaizaga kiroldegian izango da, 19:30etik aurrera.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola iritsi zara boxeora?

Elgoibarko gimnasio batean hasi nintzen lanean, aerobox ematen. Boxeoaren antzerakoa da, baina kolpeak aireari ematen zaizkio, ez zakuari edo pertsonari. Oso gustura nengibilen, baina nire buruan baneukan pauso bat gehiago emateko gogoia; zerbait gehiago nahi nuen. Elgoibarkoa bukatu zitzaidanean, Bergarako gimnasio batean hasi nintzen lanean, eta han boxeo zaku bat zegoen. Eskularruak erosi eta nire kabuz hasi nintzen zakuari kolpeak ematen. Bi urtez jardun nuen nire kontura zakuari eman eta eman, eta konturatu nintzen benetan gustatzen zitzaidala boxeoa. Orduan Eibarko gimnasio batean Sanda egiten hasi nintzen. Arte martzial bat da, boxeo txinatarraren bezala ere ezagutzen da, eta hortan lehiatzen hasi nintzen. Zortzi borroka egin nituen, eta denak irabazi nituen. Espainiako txapelketa izan nintzen, eta nazioartekoa ere bai. Sanda txapelketako borroka batean Josu Lopategi ezagutu nuen, gaur egun nire entrenatzailea dena, eta hark animatu ninduen boxeoan hasitera. Berari esker nago hemen, eta dena eskertu behar diot berari. Probatzera joan nintzen, eta bi hilabeteren barruan lehiatzen hasi nintzen. Ez dut beste entrenatzailerik izango inoiz; oso argi daukat ez dudala beste entrenatzailerik nahi. Josuk eskaintzen duena ez du beste inork eskaintzen. Bere borrokariak oso ondo zaintzen ditu, beraien osasunaz kezkatzen da, psikologikoki ondo egoteaz arduratzen da... Boxeoan gauza ilun asko ikusi izan ditut, baina Josuk gauza guztien gainetik jartzen ditu bere borrokariak.

◆ Boxeoan ez dabil jende asko, eta emakumezkoak gutxiago.

Bai, hala da. Kirol guztietan bezala,

boxeoan ere desberdintasun handiak daude gizon eta emakumeen artean. Emakumezkoak ez dugu kobratzen gizonezkoen %10a ere ez. Espainian profesionaletan hamar edo hamabi bat neska bakarrik gaude. Gizonezkoetan gehiago daude, baina emakumezkoak ez dira boxeora animatzen. Amateurretan gero eta gehiago daude, baina profesionaletan oso gutxi gabilta. Oso garrantzitsua da klub bateko kide izatea, ondo zainduko zaituzten klub bateko kide izatea. Psikologikoki ondo egon behar duzu ondo borrokatzeko, eta klub guztiek ez dituzte ondo zaintzen euren borrokariak.

“Disziplina handia eskatzen du boxeoa, baina hau da nire bizimodua eta gustura egiten dut dena”

◆ 2018tik profesionaletan diharduzu. Boxeotik eta boxeorako bizi zarela esan daiteke?

Bai, boxeoa da nire bizitza, nire pasioa. Eta zorionez, gaur gaurkoz boxeotik bizi naiteke. Nire boxeo kluba daukat Soraluzen, Sorabox, eta boxeo eskolak ematen ditut. Euskal Herrian bost boxeo klub daude, Neskabox izeneko erakunde baten barruan. Klub bateko kide denak gainerako gimnasioetan ere hartu dezake parte.

◆ Boxeoan sartu zinenean, nola hartu zuten etxekoak?

Oso ondo! Ezagutzen naute, badakite nolakoa naizen eta hasieratik babestu ninduten. Borroka ikustera ere etortzen dira,

alboan daude beti ni animatzen. .

◆ Boxeo eskolak ematen dizkiezu ume, gazte eta baita Soraluzeko zahar etxeko adinekoen ere. Boxeoa ez dauka adinik?

Ez, boxeoa edonork praktikatu dezake, bakoitzak bere neurrian. Soraluzeko zahar etxeko adinekoekin izaten ari naizen esperientzia izugarria da. Gizarte Integrazio ikasketak egin nituen, eta zahar etxeko terapeutarekin jarri nintzen harremanetan, ea zerbait egin genezakeen hango adinekoekin. Elena Beristain zahar etxeko zuzendariak esan zidan nahi baren boxeoa jartzeko adinekoekin praktikan, eta sekulako ideia iruditu zitzaidan. Astean behin joaten naiz, eta oso pozik hartzen naute. Zain egoten dira! Eskularruak jantzi eta ordubeteko terapia saioa egiten dugu. Erreflexuak, kontzentrazioa, memoria eta koordinazioa lantzen ditugu, besteak beste, eta momentu horretan gainera entretenituta egoten dira. Oso-oso gustura joaten naiz.

◆ Kanpotik ikusita kirol bortitza dirudi boxeoa. Nolakoa da barrutik?

Kirol bortitza dirudi, baina guztiz kontrarioa da. Jendeak kolpeak bakarrik ikusten ditu, eta uste du min handia hartzen dugula, baina ez da horrela. Guk badakigu kolpe horiek irakurtzen, eta badakigu nola defendatu behar garen. Nesken boxeoan, gainera, kolpeak ez dira oso gogorrak izaten. Ez gara mutilak bezain indartsuak, eta ez dugu horren gogor josten. Beste abilezia batzuk ditugu, baina indarra ez da hain garrantzitsua. 80 kilo pisatzen dituen mutil batek bai jo dezake oso gogor, eta horrek errespetua ematen du, baina ni 48-49 kilo azpiko kategorian lehiatzen naiz.

◆ Boxeoan kolpeak eman eta jaso egi-

ten dira. Nola ikasten da kolpeak jasotzen?

Kolpeak jasotzen ikasi egiten da, baina oso garrantzitsua da baita ere kolpeak sahiesten jakitea. Erreflexuak eta abiadura lantzea oso garrantzitsua da. Dena dela, jendeak uste duena baino askoz min gutxiago hartzen da boxeoa. Nik ez dut sekula lesiorik eduki. Are gehiago, belaunetik sufritzen nuen lehen asko, belauneko minez egoten nintzen askotan, eta boxeoa nabilenetik ez daukat inongo minik. Niri oso ondo egin dit boxeoa. Bizitzaren metafora bat da: kolpeak hartu, lurrera erori eta altxatzen ikasi behar da, eta gustuko ez duzun zerbait ikusten duzunean, pauso bat atzera egin, babesteko. Aldiz, erasotzeko uña ikusten duzunean, gogor eman behar da.

♦ 49 kilo azpiko kategorian lehiatzen zara. Nola zaintzen duzu zure burua pisu horretan sartzeko?

Pila bat zaintzen naiz, batez ere txapelketaren atarian. Une honetan 53 kilo pisatzen ditut, eta hilaren 11ko borrokat dirako 4 kilo kendu beharko ditut. Azken astean kentzen dira kilo horiek, entrenamendu berezi batzuekin. Plastikoa edo txubaskeroa jatzten dugu entrenamenduetan gehiago izerditzeko, eta horrela lortzen dugu pisua kentzea. Asko entrenatzen gara, egunean bi aldiz, goizez eta arratsaldean. Profesionaletan lehiatzeko beharrezkoa da egunero entrenatzea. Eta entrenamenduez gain, elikadura ere izugarri zaintzen dut. Disziplina handia eskatzen du boxeoa. Gogorra da, baina haxe da nire bizimodua, hau da gustatzen zaidana, eta gustura egiten dut dena.

♦ Zein da zure ametsa boxeolari lotuta?

Epe laburrerako daukadan helburua da 2019ko Espainiako boxeo txapelketa Soroluzera ekartzea, eta uste dut lortuko dudala. Ez dakit noiz arte jarraituko dudan boxeoa, agian pare bat urtetan utzi egingo dut, baina hemen nagoen bitartean ahal dudan guztia disfrutatzen saiatuko naiz.

♦ Zein da zure indargunea?

Nerbio handiko neska naiz, eta hori



da agian nire indargunea. Askotan neuk ere ez dut jakiten zein izango den emango dudana hurrengo kolpea! Ezin da aurrez jakin zer egingo dudana, eta horrek zailtasunak sortzen dizkio aurrean dudana borrokalariari.

♦ Tebistan ere ikusi zintugun ETBko *El conquistador del fin del mundo* saioan. Boxeolari izateak lagundu zizun aukeratu izaten?

Ez dakit. Lagun batek esan zidan kasting-a egiten ari zirela, eta ondo ikusten ninduela programan parte hartzeko. Kasting-era joan nintzen eta aukeratu egin ninduten! Sekula ez nuen programa ikusi! Pentsa, Juanito Oiarzabal zen nire taldeko kapitaina eta ikusi nuenean nor zen galdetu nion. Txantxetan nenbilela pentsatu zuten denek, baina nik ez nuen Juanito ezagutzen! Oso esperientzia ona izan zen, baina gogorra egin zitzaidan. Fisikoki oso jende indartsuak hartzen du parte saio horretan. Ni indartsua naiz, baina nire mailan. Azken batean, nire ezaugarri fisiko antzekoak dituzten emakumeen kontra lehiatzen naiz, eta programan ni baino indartsuagoak ziren neska asko zeuden.

♦ Elgoibarko kiroldegian ere ibili zinen eskolak ematen.

Bai. Niri betidanik gustatu izan zait kirola egitea, eta kirola asko egin izan dut beti, baina kirola ofizio bezala Elgoibarran ezagutu nuen. Nik denda batean egiten nuen lan, eta tarte horretan kirol begirale titulazioa ateratu nuen. Ramon Mujikak [Kirol Patronatuko zuzendaria] eman zidan lanerako lehenengo aukera, konfiantza guztia jarri zuten nigan, eta horri esker zabandu zaizkit gero ate guztiak. Eskerrak eman nahi dizkiot Ramoni ere.

♦ Boxeo ikastaroa eskainiko duzu bihar. Nori zuzenduta dago?

7 urtetik gorako edozein etorri daiteke. 7 urtetik beherakoak oraindik txikiegiak dira boxeoa praktikatzeko, baina hortik aurrera, edonork praktikatu dezake boxeoa. Oinarrizko ikastaroa izango da, eta boxeoa oinarri-oinarrizko kontzeptuak landuko ditugu. Kolpeak nolakoak diren azalduko dugu, zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezkeela, pausoak, eta kolpeak nola ebitatzen diren ere erakutsiko dugu. Josu Lopategik eta biok emango dugu ikastaroa, eta oso interesgarria izango da.

40. urteurreneko ospakizunak amaitzeko argazki erakusketa, bazkaria eta antzerkia antolatu ditu Taupadak

Taupada antzerki taldea 1997ko udazkenean sortu zuten kultura eta euskara sustatzeko helburuarekin, eta 2017an bete zituen 40 urte. Iazko urtea hartu zuten ospakizunetarako, eta maiatzean emango diote amaiera urteurrenari. Hilaren 15ean argazki erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxeko sotoan, eta unean bertan performance bat egingo dute. 40. urteurreneko ospakizunen barruan estreinatu zituzten obretako argazkiak atera ditu Manu Sanchezek, eta erretratu horiekin osatu dute erakusketa. Maiatzaren 24ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era.

Maiatzaren 25erako, berriz, herri bazkaria antolatu dute. Maialako parkean egingo dute 14:30etik aurrera, eta bazkaritarako tiketak salgai daude dagoeneko, Jai Alai eta Lanbroa tabernetan. Taupadako kideek eurek ere saltzen dituzte, eta nahi duenak haien ere eskatzeko aukera dauka. Helduek 20 euro ordaindu behar dituzte, eta 12 urtetik beherakoek, 10 euro. Bazkal aurretik,



12:30ean hasita, antzerki-tantak eskainiko dituzte kalean zehar, eta bazkal ondorenean, antzerki bat egingo dute Maialako parkean bertan. Horrez gain, Agirre sastrearen lokalean eszenatoki bat prestatu dute, eta hango telebistako pantailan 40 urteetako antzezlanen bideoa egongo da ikusgai hilabete osoan.

Hilaren 17an bukatuko da danborradaren kartel lehiaketan parte hartzeko epea

Atabal elkarteak Trinitateetako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du, eta hilaren 17an amaituko da parte hartzeko epea. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta bakoitzak nahi duen teknika erabiltzeko aukera izango du. Hori bai, ezinbestean agertu beharko da kartelean ondorengo testua: *Elgoibarko 2019ko Danborrada ekainaren 15ean, 23:00etan*. Lanak Kultur Etxean aurkeztu behar dira. Epaimahai batek aukeratuko du sariduna, eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Informazio gehiagorako elgoibardanborrada@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Bi film eskainiko ditu Ongarri zineklubak Berdintasun Sailarekin elkarlanean

LGTB kolektiboaren kontrako fobia-ren eguna izango da hilaren 17an, eta horren harira, bi film eskainiko ditu datozen asteetan Ongarri zineklubak, Udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean. Maiatzaren 9an *Tierra de Dios*, eta hilaren 16an, *Las herederas*. Bi filmak 21:30ean hasiko dira.



Tierra de Dios filma 2017koa da. Pelikula ingelesa da, eta drama generoan kokatu dute adituek. Jonhny Saxby nekazari gaztea alkoholarekin eta sexuarekin dituen arazoak gainditzeko ahaleginean bizi da Yorkshire herrialdean. Udaberrian errumaniar gazte bat iritsiko da herrira ardi zaintzan lan egitera, eta haren etorrerakin, erabat aldatuko zaio bizitzaren ikuspegia.

Las herederas, aldiz, 2018ko film paraguayarra da. Goi mailako bi emakume dira filmeko protagonistak. Dirutza handia jasoko dute oinordetza batean, eta horrek bizimodu erosoa edukitzeko aukera emango die. 60 urteko adinera iristean, ordea, diruak ez die emango nahi bezala bizitzeko aukera, eta euren bizimodua goitik behera aldatuko da.

'Artea familian' egitasmoa, domekan

Artea familian izeneko tailerra antolatu dute Elgoibarko Izarraren Kiribilduz egitasmoak eta Egur arte tailerrak, Udalarekin lankidetzan. Familien artean euskararen erabilera sustatzea du helburu batetik, eta bestetik, sormena lantzea. Bi saio egingo dituzte, eta domekan izango da lehenengoa, 10:00etatik 13:00etara, Egur Arte Eskolak merkatu plazan daukan lokalean. HH5etik LH2ra arteko umeek eta haien gurasoek hartu dezakete parte. Interesatuak 8 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek eta Egurreko ikasleek, 6 euro). Bigarren saioa hilaren 12an egingo dute, ordu eta leku berean.

Realak irabazi zuen Kirolaren 2019ko Hiri Europarra Kopa



Real Sociedad B taldeak 4-2 irabazi zion Racing Santander taldeari joan den domekan Mintxetan jokatu zuten Kirolaren 2019ko Hiri Europarra Kopan. C.D. Elgoibar emakumezkoen futbola sustatzeko lanetan ari da, eta horren harira antolatu zuten emakumezkoen goi mailako norgehiagoka. Argazki gehiago barren.eusen.

La Wonga taldeak irabazi du Futbol 7 txapelketa mistoa



Zazpi taldek hartu dute parte Elgoibarko estreinako Futbol 7 txapelketa mistoan. Horietako bat, Pasillo taldea, emakumez bakarrik osatuta egon da. Apirilaren 26an eta 27an jokatu zuten txapelketa Mintxetan, eta La Wonga eta La Rula taldeak ailegatu ziren finalera. La Wongak irabazi zuen finala (1-0), eta 300 euroko saria eta Sigma jantxan afaria jaso zituzten saritzat.



Kadeteen txirrindulari lasterketa jokatuko dute bihar

Kadete mailako txirrindularientzako 27. Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirrindulari lasterketa jokatuko dute zapatu honetan. Mintxetatik irtengo dira txirrindulariak, 10:00etan, eta 52 kilometroko ibilbidea osatu ostean, helmuga ere Mintxetan izango da. Parte hartuko duten Elgoibarko Lagun Taldeako kideek arropa eta babesle berriak estreinatuko dituzte. Berde eta txuri koloreko maillotak erabiliko dituzte aurrerantzean klubeko txirrindulari guztiek.

Jabier Osoro bolaria nagusi Asola Berriko jaurtialdian

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-Joko Txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu zuten, apirilaren 27an, Eibarko Asola Berriko bolatokian. 74 bolarik hartu zuten parte eta San Migel taldeko Jabier Osoro gailendu zen, 7 txirlo botata. Mikel Almorza bergararra sailkatu zen bigarren postuan eta Xabier Loiola elgoibartarrak egin zuen hirugarren. Sailkapen nagusian Angel Ibarluzeak jarraitzen du lidergoan, 30 txirlorekin, bigarren dagoen Ganix Rodriguezek baino hiru txirlo gehiagorekin.



Omenaldi beroa egin zioten eskubaloia lagatzea erabaki duen Andoni Armendiari




Arg.: Iñaki Aragon

Alcorta Forging Group eskubaloia taldeak denboraldiko etxeko azken partida jokatu zuen aurreko zapatuan Olaizagan. Elgoibartarrek 29na berdindu zuten Ereintza taldearen aurkako partida, baina emaitzak baino pisu handiagoa izan zuen Andoni Armendiari egin zioten agurrak. Azken 11 denboraldietan Alcorta taldeko kapitaina izan denak eskubaloia lagatzea erabaki du, eta taldekide eta zaleen omenaldia jaso zuen. Armendiak 18 urte egin ditu Sanlon. Alcortak Tolosan amaituko du denboraldia asteburuan. Une honetan sailkapeneko 11. postuan dago Sanloko taldea.

Maite Maiorak laugarren egin du Madeirako Island Ultra Trail lasterketan

Distantzia luzeetan ere bikain moldatzen dela erakutsi berri du Maite Maiora mendaroarrak Portugalen. Madeira Island Ultra Trail lasterketa jokatu zuen asteburuan, 115 kilometro eta 7.200 metroko desnibel positiboduna, eta laugarren helmugaratu zen, 16 ordu eta 40 minutuko denbora eginda. Maiorak berak aitortu zuen 61. kilometrorako igarri



zuela erritmoa falta zuela, baina distantzia luzeetan eskarmentua hartzea ere bazuenez helburu, aurrera egin zuela. Emakumezkoetan, Courtney Dauwalter nagusitu zen, 15:17:05eko denbora eginda, eta podiuma beste bi emakume hauek osatu zuten: Katie Schide (15:43:43) eta Audrey Tanguy (16:10:59).



Goikoetxek eta Izeta IV.ak harri-jasotze apustua jokatu dute bihar Azpeitian

Imanol Albizu Goikoetxe harrijasotzaile elgoibartarrak botatako desafioa onartu zuen Hodei Iruretagoiena Izeta IV. zarauztarrak. Bihar, maiatzak 4, neurtuko dituzte indarrak Azpeitiko zezen plazan, 19:00etan hasita. Bi harrijasotzaileek hamar minutuko hiru txanda egingo dituzte 125 kiloko kubikoarekin. Alde bakoitzak 6.000 euro jarriko ditu deman.

Kirolaren balioez hitzaldia emango dute Vicente del Bosquek eta Jesus Mari Zamorak

Europako Kirolaren Herria izendapena ospatzeko prestatutako egitarauaren barruan, hitzaldi berezia antolatu du Udal Kirol Patronatuak. Vicente del Bosque eta Jesus Mari Zamora izango dira hizlariak eta kirolaren balioez berba egingo dute Herriko Antzokian (19:30), maiatzaren 28an. Real Madrileko jokalaria eta Espainiako futbol selekzioko hautatzailea izana da Del Bosque. Zamorak, berriz, Errealean jokatu zuen 1974tik 1989 arte, eta bi Liga txapeketa irabazi zituen.



LANA.....
Eskeraerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 643 464 072

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez, etxean zein ospitalean.
☎ 602 355 271

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile titulua eta esperientzia daukat.
☎ 631 200 936

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 640 821 269

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat.
☎ 622 134 310

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat mendokotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen eta etxeko lanetan.
☎ 632 480 376

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak eta umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten.
☎ 602 811 319

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduz gain malguta.
☎ 632 292 690

Neska euskalduna goizez umeak zaintzeko prest. 7:00etatik 9:30era eskolara eramango nituzke.
☎ 666 667 183

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.
☎ 602 360 043

Pertsona euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Titulua eta esperientzia handia ditut. ☎ 626 490 986

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut. Erreferentzia onak ditut.
☎ 689 571 882 / 666197 831

Edozein lan egiteko prest nago.
☎ 643 961 051

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta gabez ere bai. Esperientzia, erreferentzia onak eta titulazioa ditut. ☎ 632 490 649

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.
☎ 671 989 434

Adinekoak zaindu eta garbiketarako egiteko prest. Asteburuetan ere bai.
☎ 657 363 453

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Malgutasun osoa. ☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest. ☎ 612 574 783

Ostalaritzan jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia.
☎ 602 811 319

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 664 087 760

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. ☎ 688 825 514

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.
☎ 612 296 098

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.
☎ 602 027 589

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. (Elena Agirre)
☎ 943 742 330 / 660 511 781

Eskaintzak

Estetikaria behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Bidali curriculumara: olamarsan@gmail.com

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. *buruagaltzen@gmail.com*

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Trenbide kalean. Kotxe batentzat lekua dauka.
☎ 670 406 748

OSPAKIZUNAK.....

1969koen kinto bazkaria maiatzaren 18an, Sigma jatetxean. 12:00etan batuko dira Leku Ederren, eta 12:30ean aterako dute argazkia. 69 euro ordaindu behar dira, kontu honetan: ES53 3035 0007 2500 71136817



LAGUNAK
colchonera textil hogar


Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

ALTZARI BILDUMA BERRIA!
Aukera zabala

- Neurriera egindako altzariak
- Gazte-logelak
- Logelak
- Zure gustora diseinatutako kanapeak, alboko kaxoiekin, oinetakoentzako txokoarekin.






Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Erria Administrazioaren Kontseilua

Gure etxepeko garajeetan ate mekanikoa jarri nahi dugu, eskuz ireki eta ixteko atea oso deserosoa delako. Jakin nahiko nuke zenbateko gehiengoa behar dugun erabaki hori hartzeko.

Legedian egindako aldaketa batek arindu egin du lehen eskatzen zen bateratasun baldintza: Legeak dio, lokal eta etxeak zatitzea lokal txikiagoak edo independenteak sortzeko, eraikin bereko ondoko lokala gehituz lokal horren azalera handitzeko edo lokal hori txikitzeko, eraikinean solairu berriak sortu edo estrukturan edozein aldaketa egiteko, terrazak ixteko edo eraginkortasun energetikoa hobetzeko edo zoruaren legea moldatzeko baimen administratiboa behar dela, eta horretarako etxejabeen hiru bostenen adostasuna lortu behar dutela, eta aldi berean, etxejabe horiek partaidetza kuota hiru bostenak ordezkatu behar dituztela.


GOMENDIOA: Kasu hauetan guztietan kaltetuen baimena beharko da, eta jabekideen komunitateak eta kaltetuak berak adostu beharko dituzte dagozkion kalteordainak zenbatekoak diren. Kuota berrien eta egingo diren obren gainean akordiorik ez badago, jabekideen komunitateak adostu beharko du azken erabakia.



ROSA M^a PINTADO

Etaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net






ZORIONAK

Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Jon**, gaur 8 urte bete dituzelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Luken**, txapel-duna, maiatzaren 6an 5 urte egingo dituzelako. Muxu asko Elgoibarko familiako partez.



Zorionak **Jakesi**, eteko txikitxoari, maiatzaren 7an urte bat egingo duelako. Muxu bat Elgoibarko familiako partez.



Zorionak, **Nerea**, hilaren 1ean 9 urte egin zenituelako. Familiako, eta bereziki, Nora eta Ibairen partez.



Zorionak, **Iker eta Haritz**, hilaren 4an eta 6an, 5 eta 8 urte beteko dituzelako. Muxu handi bana, eteko guztien eta lagun partez.



Zorionak, **Paula eta Julen**, 9 eta 10 urte bete dituzelako.



Urte askotarako, **Eilene**, zure 7. urtebetetzean, izugarri maite zaitugunon partez. Beti bezain zoragarri jarraitu! Otiartzun eta Mendaroko familien partez.



Zorionak, **Maider**, apirilaren 24an 10 urte bete zenituelako. Muxuak, familiako guztien partez.



Zorionak, **bikote!** Ondo pasatu zuen egunean, guk ere halaxe egingo dugue! Muxu handi bana, etekoen partetik.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

IKASGO
ACADEMY

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

IKASBAI
ACADEMIA

- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



Meka

Lanbide Eskola

ATE IREKIAK MAIATZAK 10



SOLDADURA ETA
GALDARAGINTZA



OSASUNGINTZA



GIZARTE ETA
KULTUR ZERBITZUAK



ADMINISTRATZEA



AUTOMOZIOA

FORMAKUNTZA ESKAINTZA

2019-2020



Meka
Lanbide Eskola

ERDI MAILA
Memorizazioan Egutegian oinarritutako arreta

Administrazio Kudeaketa

Soldadura eta Galdaragintza

Elizantziaren Zaintza Osagarria

Bilgaitzen Elektromekanika

Karriera

GOI MAILA
Metal Enkarguetan

Hiru-Hezikuntza

Automozioa

Administrazio eta Finantza

ESKAITZA PARTZIALLEAN
Errehabilitazio Zaintza Osagarria

Soldadura eta Galdaragintza

Gizarte eta Kultur

Automozioa

www.meka-elgoibar.net 943 748 019 bulegoa@meka-elgoibar.eus

Autobusa antolatuta dugu Iparraldeko ikastolei lagundu, egun zoragarri bat pasa eta gure euskaltasuna aldarrikatzeko

- Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geltokia).
- Itzulera: 19:00 Senperetik.
- Prezioa: 12 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 11 euro).
- Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da.
- Azken eguna: maiatzak 9 (autobusa irtezeko gutxieneko kopurua 30 pertsona).

LK
HERRI URRATS 2019
SENPERE
MAIATZAREN 12a



3 BARIXAKUA

11:00 Santa Kurutz Eguneko meza, San Rokeko ermitan.

18:30 Erakusketa: Egur arte tailerreko umeen lanak. Hilaren 11 arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

4 ZAPATUA

10:00 Kadete mailako txirindulari lasterketa. Lagun Taldeak antolatuta. Irteera eta helmuga, Mintxetan.

10:30 Boxeoko hastapen ikastaroa. 7 urtetik aurrerakoentzat. Ixa Rodriguez eta Josu Lopategi boxeolariak emango dute. IMH kiroldegian.

10:30 Xake Eguna, Mendaron. Arno Guraso Elkartek antolatuta.

12:00-15:00 / 19:00-21:00 Pintxo lehiaketa, Mendaron.

19:30 Bizi Poza txarangaren kalejira, Mendaron.

5 DOMEKA

10:00 Artea familian, HH5etik LH2ra arteko umeentzat. Egur eta Elgoibarko Izarrak antolatuta, Egur arte tailerraren lokalean.

12:00-15:00 / 19:00-21:00 Pintxo lehiaketa, Mendaron.

18:30 Turisteatzen kale antzerkia, Trapu Zaharrak taldearekin, Mendaron.

6 ASTELEHENA

19:00 Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa, Kalegoen plazan.

7 MARTITZENA

11:00 Pleno txikia. Ingurumen Sailak eta Agenda 21 egitasmoak antolatuta, Elgoibarko Udaleko udalbatza aretoan.

10 BARIXAKUA

21:30 Zine foruma: 'De oxido y hueso'. Loregi Salegik gidatuko du saioa.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Dumbo'
3 barixakua: 21:30
4 zapatua: 19:00 / 22:15
(VOS)
5 domeka: 19:00
6 astelehena: 21:30



'Tierra de Dios'
(Ongarri zinekluba,
Berdintasun Sailarekin
elkarlanean)
9 eguna: 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

3 BARIXAKUA	4 ZAPATUA	5 DOMEKA	6 ASTELEHENA	7 MARTITZENA	8 EGUAZTENA	9 EGUENA	10 BARIXAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



I. URTEURRENA

Trinidad Matas Coro

2018ko maiatzaren 5ean hil zen, 93 urte zituela.
Zure irribarrea eta elkarrizketarako abilezia falta zaigu.

Datorren maiatzaren 4an, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome deunaren eliz-parrokian izango den
hileta elizkizunean gogoratuko zaitugu.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

Etxekoak




VII. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

*Gure ondotik joan zinela
zazpi urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre eta alaitasunaz
gogoan bizi gara gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.*

2012ko maiatzaren 7an hil zen.

Familiakoak



VII. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

*Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza burruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
kuadrillako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan.*

2012ko maiatzaren 7an hil zen.

Kuadrillako lagunak





1958

Aste honetako erretratu zaharra Jesus Aizpurua Epeldek lagatakoa da, baina Armando Lasuenek ekarri du BARRENEko erredakziora. Umore Ona izeneko futbol taldea ageri da argazkian, 1958. urtean, Lerungo futbol zelaian. Gogora ditzagun zeintzuk diren taldeko futbolariak. **Zutik:** Rafael Barrenetxea (†) (delegatua), Jose Luis Elizburu, Jose Luis Lasa, Javier Rezola (†), Xabier Gorostiza, Jose Antonio Iriondo (†), Luis Maria Garate eta Jose Miguel Iriondo. **Behean:** Armando Lasuen, Jesus Maria Ortueta (†), Ramon San Martin (†), Alberto Ortueta (†) eta Eduardo Martin (†).



II. URTEURRENA

Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

**Zure bihotza itzali arren,
gure bihotzetan biziko zara betiko.**

Etxekoak.



Gremioen gida

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta, 7 behe - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzaletellabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROTEGIAK

BIENA S.L.
AROTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

f

Ulazia
AROTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



IMAR
AROTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

f

iraolagoitia
arotegia · altzariak · ebe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

Arotegia · Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaarotegia@gmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

Iturgintza
■
Arotzegiak
■
Izurrien kontrako tratamenduak
■

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

Leihoak
■
Pintura
■
Elektrizitatea
■
Igeltseritza
■

Bolatokia koplatoiki bihurtuko da ekainaren 7an

**Apuntatu
agendan!**

**2 aurkezle
10 bertsolari
4 musikari
dozenaka koplak
60 epaile
eta sari bakarra!**